

<u>GALDERAK</u>	<u>ERANTZUNAK</u>
Konpostatze planta eta transferentzia-gunea horretarako prestatutako lekuan eraikiko da. Leku hori "Auzo-bideak aldatzeko eta Epeleko eremuko sarrerak egokitzeko lurren mugimenduak" proiektuan dago definituta, eta planta eta gune horren obrak gauzatuko dira GHK, SAUk 2013ko ekainaren 27an "Auzo-bideak aldatzeko eta Epeleko eremuko sarrerak egokitzeko lurren mugimenduak eraikitzekeko proiektuaren obrak egiteko kontratua" esleitu ondoren. Zein da aurreko proiektuaren irismena? Eta proiektu hori lizitazio honetan deskontatu egin da? Ur-gordailuen lizitazioa ere lizitazio honetan deskontatu egin da? Obraren epeak, sarbideak eta urbanizazioa oztopatzen al dituzte? Nola?	Epeleko eremurako sarrerak moldatzeko eta aldameneko bideak eraldatzeko lur mugimenduak egiteko proiektua"-ren irismena 2013ko ekainaren 27an esleitu zen, eta horien obrak 2014ko martxoaren 21ean bukatu dira. Obren helburua izan zen zabalgunearen kota mailan lurrazala egokitzea plataformak egiteko. Plataforma horietan ondoko eraikin hauek kokatuko dira etorkizunean: Epeleko Konpostatze Planta, Transferentzia-gunea eta Kamioiak garbitzeko eraikina. Era berean, Lizitazioaren xede den Proiektuaren plano topografikoan jasotzen den bezala, obren helburua izan zen baita ere sarbiderako bidea, glorieta, eta arrapalaren zabalgunea eta errekaostoen desbiderapena egitea, eta lurren mugimenduengatik eragina izan duten aldameneko bideak berriz jartzea. Proiektu hori, 1go Eraldatua eta Obra Bukaerako Proiektua GHKren bulegoetan kontsulta daitezke. Obra horiek, alegia, "Epeleko eremurako sarrerak moldatzeko eta aldameneko bideak eraldatzeko lur mugimenduak egiteko proiektua" eta "Ur-gordailuen proiektua" deskontatu egin dira "Konpostatze Planta eta Transferentzia-gunearen Proiektu"-ko lizitaziotik. "Ur-gordailuen Proiektua" lizitazioan dago une honetan, eta proiektu hori egiteko obrak Epeleko Konpostatze Plantaren eta Transferentzia-gunearen Proiektuko obrak egikaritu baino lehen egitea, eta "Konpostatze Plantaren eta Transferentzia-gunearen Proiektu"-ko obrak hasi baino lehen bukatuta egotea aurreikusten da. Hortaz, obra horiek

	ez dituzte oztopatzen obra-epeak, ez sarbideak, ezta urbanizazioa ere. Aldiz, “Urgordailuen Proiektua”-ren obrak bukatuz gero, obran sartzeko bidea hobetuko da. Izan ere, sarbiderako bidea, biribilgunea, arrapala eta zerbitzurako bidea zabor-legarraren kotaraino egikaritzea aurreikusten da, sakontasun handian iragaten duten zerbitzu-sareen zati batekin batera.
2. GUTUN-AZALA: KALITATE-MEMORIA a) PROPOSAMEN EDO MEMORIA tekniko edo obraren egikaritze-azterketa bat, non azalduko eta justifikatuko den lan hori nola egin nahi den. Lizitatzailleek puntu honetan zer ekarpen egin beharko lukete? b) Aldaerarik onartzen ez dela kontuan izanda, zein da konpostatze prozesuko teknologia?	Pleguetan azaldutakoaren arabera, lizitatzailleak bere proposamena hobeto dakien eta ulertzen duen bezala egin beharko du. Lizitatzailleak askatasun osoarekin proposatu beharko du bere iritziz eta usterik onenean zein den pleguetan eta proiektuan zehaztutakoaren arabera ondoen egokitzen den teknologia.
Hitzarmen kolektiboaren arabera lanbide-kategoria bakoitzeko soldaten kostu minimoa baino prezio txikiagoa agertzea parametro objektibo bat da ohiz kanpoko edo gehiegizko balioak gehitu izanaren ondorioz proposamenak ezin direla bete hautemateko. Proposamen ekonomikoa AKPPko (Administrazio Klausula Partikularren Pleguko) Igo Eranskinaren arabera bidali behar da, eta hor bakarrik agertzen da Lizitazioaren Oinarrizko Aurrekontuaren arabera eskaini den zenbateko osoa. Hala ere, prezioen koadrorik ez dago, orduan, nola baloratzen da parametro hori?	Horrek esan nahi duena da ohiz kanpoko edo neurrigabeko balioen kasuan, balio horiek justifikatuz gero, indarrean dagoen hitzarmen kolektiboak baino soldata-prezio txikiagoak ezin izango direla kontuan hartu.

ESLEIPEN-KOEFIZIENTEA OBRA ZIBILEAN: Instalazioaren zatia nola utzi daiteke kanpoan, prezioa orokorra bada? Eskaintzatik oinarrizko aurrekontutik beste kentzen al da? Instalazioaren prezioak mantentzen badira, bajaren gainerakoa handitu egiten al da horrek obra zibilean duen ondorioekin? Ala obra zibila eskaini den bezala geratzen al da? Koefiziente hori egin ondoren, egikaritutako obra-unitateak lizitazioan agertzen diren berdinak badira, eskainitako zenbatekoa berdin geratzen al da?	Instalazioa zer den 1.11 atalean dago azalduta (Konpostatze prozesuaren instalazioak, Memoriaren 8. Eranskinaren arabera). Gainerako atalek bajaren eragina izango dute, baina 1.11 ataleko prezioa ez da aldatuko.
KONTRATISTAREN BERARIAZKO BETEBEHARRAK 1.- “Jarduera lizentzian finkatutako neurri artezleak” eta proiektuaren gainerako dokumentuetan eskatzen dena bete behar du kontratistak. Esaten dute ez dituztela aurkitzen.	Webgunean argitaratu dira.
Eragina izan duten zerbitzuei dagokienez (AKPParen 32. or.) osotasuna kontuan hartu behar dela adierazten da, eta automatikoki konpainia edo zerbitzu nagusiak baztertzen dira, banan bana. Zer geratzen da proiektu horren irismenaren barruan?	Testuan bertan argi jartzen du.
Berre-epeak irauten duen bitartean (karatularen arabera 2 urte irauten du, harrera egin ondoren) kontratista poliziaren eta obren mantentze-lanen arduraduna izan beharra argitzea nahi dute: “Obren kontratista ez da bertan egongo lanak egiten diren bitartean. Ondorioz, ezkutuko akatsen aurrean erantzun dezake, baina ez dauka tresnarik lanak mantentzeko eta zaintzeko ardura hartzeko”.	Bertan ez egoteak ez du kontratista aske uzten bermea izatetik, ezta gerta daitezkeen akatsak zuzendu beharretik.

Ondokoa argitzea eskatzen dute: Martxan jartzeko prozesua egikaritu ondoren, kontratistak Funtzionamendu eta Bermeen Probak egingo ditu, non Konpostatze Planta eta Transferentzia-gunea eta elementu komunak osatzen duten instalazioen egokitasuna egiaztatuko duen, 10 egunetan jarraian martxan jarritz, Xedapen Teknikoen Pleguan zehazten diren baldintzen arabera.	Proba funtzional guztiak egingo dira instalazioa kargarekin martxan jarri (konpostatze prozesu osoa) eta hori gainditu ondoren. Aipatu kargarekin martxan jarri ondoren hasiko da hamar eguneko epea.
Eskatzen dute argitzeko ea eranskin horretan adierazitako ezaugarri guztiak zehatz-mehatz bete behar diren, edo ea ezaugarri horiek alda daitezkeen, beti ere instalazioen eta definitutako prozesuaren kalitatea mantenduz, edo ea ezaugarri horiek hobetu ere egin ahal izango liratekeen, esaterako, ekipoen zerbitzuei dagokienez, eta hori eginez gero, ea atal horretan hori baloratuko litzatekeen. Ze neurritan baloratuko lirateke teknikoki ekipoentzako eskainitako kalitateak edo markak? Izan ere, koste ekonomiko handiagoa suposatuko lukete. Bestela, zer baloratuko da bakarrik, instalazioen definizio eta xehetasun maila?	Proposatutako ekipoek pleguan ezarritakoaren arabera duten egokitasuna egiaztatuko da. Kalitateak baloratuko dira, baina ez markak.
Obrako Delegatu bat lanaldi mugatuan eta Obra Buru bat lanaldi osoan esleitu ahal izango lirateke, biak bide, ubide eta portuetako ingeniariak eta eskatzen den esperientziarekin.	Kontratistaren delegatua eta Obra Burua pertsona ezberdinak izan daitezke. Baina beti ere, biek izan behar dute pleguan eskatzen den esperientzia tekniko (esperientzia eta titulazioa), Obra Burua lanaldi osoan egon beharko da, eta GHK-k edo Obra Zuzendaritzak eskatzen duen guztietan, Kontratistaren Delegatuaren erantzuna bermatuta egon beharko da eta berehalakoa izan beharko da.
AURREKONTUA eskatzen dute Presto edo bc3 formatuan.	Web-orrian eskatutako artxiboa ematen da.
Eskaintza ekonomikoan tasak barneratuta daudela aipatzen de Plegu Administrazioetan	Administrazio Klausula Partikularren Plegua-k, 10. puntuan "Proposizioak: Dokumentazioa

eta zein tasa barneratu behar diren, eta zein gastu diren esleipendunaren kontura egiten dute kontsulta.	eta Proposamenak” atalean, 3. puntuan “Gutun-azala: Proposamen Ekonomikoa”-ri dagokionean, 3. puntuko 2. paragrafoak honakoa dio: <u>Esleipendunak kontratatutako zerbitzua gauzatzeko egin beharreko gastuak</u>, orokorrak, finantzarioak, aseguruena, <u>tasak</u>, fidantzak, saiakuntzak, garraioa eta desplazamenduak, bere kargura dauden teknikarien eta laguntzaileen ordainsariak eta dietak, eta plegu honetan aurreikusten diren beste gastuak.
BABParen 17. orrialdean, 3. GUTUN AZALA PROPOSAMEN EKONOMIKOA atalean, ¿Obra planaren balorazioa, 3. sobrea aurkeztu den eskaintzari jarraiki egin behar al da?	BABP are 11.klausulan (17. orrialdean) aipatzen den lan-programa, BABParen 25. klausulan zehazten da (24 orrialdea) kontratua formalizatzen denean, Kontratistak bere eskaintzan jaso duen Lanen Programaren garapen egoki bat aurkeztu beharko dio obren zuzendaritza fakultatiboari. Ez da nahastu behar Lan-Programa ,2. gutunazalaren edukiarekin, “Kalitate-Memoria”rekin alegia. Honek, bere barne ba du a) PROPOSAMEN EDO MEMORIA eta b) EPEA ETA PLANGINTZA, hala badagokio, 3.gutunazalen irikiera aurretik osoki baloratuko dena.Eskaintza ekonomikoaren edukia (3. gutun-azala) BABParen 10. klausulan zeazten da. En contenido de la propuesta económica.